

EUSKARA IKASTAROAK URTARRILEAN ZABALIK

Aurten inoiz baino elkargokide gehiago ari da euskara ikasten Elkargoak Euskaraz ekimenean: 19 abokatu, 9 ekonomilari, 3 langile BM30n, 3 gizarte langile, 2 arkitekto, eta herrilanetako ingeniari tekniko 1, albaitarietako 1 eta haginlarietako 1.

Bestetik, elkargoetako langile batzuk ere hasi dira euren euskara hobetzen. Guztira 7 langile ari dira euskara ikasten aurten.

Orain, urtarrilean, berriz ere ikasten hasteko aukera dago. Interesik baduzu deitu albait arinen: 944 00 11 33 basqueproeus@bm30.eus.

Gogoan izan hilero 30 € direla, eta beraz, urtarriletik ekainera 180 euroko ekarpena egin behar da.

CURSOS DE EUSKERA ABIERTOS EN ENERO

Este año hay más colegiados y colegiadas que nunca aprendiendo euskera en la iniciativa Elkargoak Euskaraz: 19 abogados-as, 9 economistas, 3 trabajadores-as sociales, 3 personas en BM30, 2 arquitectos-as y 1 ingeniera técnico de Obras Públicas, 1 veterinaria y 1 dentista. Por otro lado, algunas trabajadoras y trabajadores de los colegios también han comenzado a aprender euskera y son concretamente 7.

En enero, hay posibilidad de empezar a estudiar euskera y si estás interesado-a nos puedes mandar un mensaje a basqueproeus@bm30.eus o llamar al 944 00 11 33 cuanto antes.

Recuerda que cada mes son 30 euros, por lo que de enero a junio hay que aportar 180 €.

ORDENAGAILU EUSKALDUNA: WORD, LIBRE OFFICE, OUTLOOK, GMAIL...

Azken pilula honetan honako aplikazioak euskaraz erabiltzeko aldaketak nola egin behar diren ikusi ahal dugu. Berehala egiten da:

- Fitxategien esploratzailea
- Word-Excel-Power Point
- Libre Office
- Outlook
- Gmail
- Txantxangorria nola jarri
- Webguneak euskaraz nola ikusi

ORDENADOR EUSKALDUN: WORD, LIBRE OFFICE, OUTLOOK, GMAIL...

En esta última píldora podemos ver cómo hacer los cambios para utilizar en euskera las siguientes aplicaciones. Es cuestión de muy pocos minutos:

- Explorador de archivos
- Word-Excel-Power Point
- Libre Office
- Outlook
- Gmail
- Colocación del Txantxangorri
- Cómo leer sitios web en euskera

Lotura → [PILULA / PÍLDORA](#) ← Enlace

IRULEGIKO ESKUA: EUSKARA BETIDANIK

Irulegiko eskuarekin euskara hemengo betiko hizkuntza dela berriz ere frogatuta geratu da. Eskua iberiar grafiaz idatzita dago.

Aurkikuntza honek oihartzun handia izan du, baita estatuko eta nazioarteko egunkarietan ere. Euskal Herrian iberiar grafiaz idatzita ditugun beste testuak ere garrantzitsuak direla erakutsi digu, hala nola, Mendigorrian dagoen Andiongo mosaikoaren esaldia, txanponak, etab.



**Sorioneku
gabonak
eta urte
berri on**

LA MANO DE IRULEGI: EUSKERA DESDE SIEMPRE

Con la mano de Irulegi ha vuelto a quedar demostrado que el euskera es la lengua de siempre de aquí. La mano está escrita en grafía ibérica.

Este hallazgo ha tenido una gran repercusión, incluso en periódicos estatales e internacionales. También nos ha enseñado la importancia de otros escritos en grafía ibérica de Euskal Herria descubiertos hasta ahora como la frase del mosaico de Andion (Andelos) en Mendigorria, las monedas, etc.